

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

35. zk. 1995eko azaroa

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27




Hiru txapeldun

**Txema Ramirezekin
hizketan**



**Arabako
II. trikitilari
eguna**





kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

GEU Elkartearen III. Batzar Nagusia



Zuzendaria:

IOSU KINTAS

Erredakzio-burua:

XABIER ZABALETA

Erredakzio-batzordea:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI

ASIER PEREZ DE KARKAMO

SUSANA CALLEJA

ITZIAR MTZ. DE SANTOS

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

ASIER PEREZ DE KARKAMO

Itzultzailea

INAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

INIGO SARASOLA

Marrakziak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA OLALDE

DAVID AGUILAR

JOSEBA UNZALU

ASIER PEREZ DE KARKAMO

LOREA ZURIMENDI

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUANJO JOSE KASTRESANA

INAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)

ORAIN DELA BI URTE t'ardi sortu zen GEU elkarte. Ordutik urteak adina batzar joan zaigu eta beraz, aurten 3. Batzar Nagusia deitzera goaz hil honen 24rako. Bazkideak bilduta, GEUre ihardunaren balantzea egingo dugu, aurrera begirako eginkizunak aztertu, onartu eta martxan jartzeko aukerak ikusiko ditugu.

Aurtengo urtariletik GEU elkarteak eta berarekin batera GEU GASTEIZ aldzikariak egoitza berria daukate. Geroztik badugu elkarte eta aldzikariaren azpiegitura erabiltzeko modu egokiagoa.

Hortaz, labor dezagun azkenengo Batzar Nagusitik hona GEU elkartearen ihardunaren punturik azpimarragarrienak:

- ✓ GEU GASTEIZ aldzikariak % 10ean handitu du bere tirada (5.000 aletik 5.500era). Bere kolaboratzaileen sarea fin-katu du.
- ✓ Hainbat erakunde, eskola, elkarte, alderdi politiko eta sindikaturen arteko hitzarmena bultzatu du euskararen idatzizko erabilera areagotzeko.
- ✓ Euskarazko hezkuntza ereduetan umeak eta gazteak matrikulatzeko kanpainak burutu ditu, baita beste herrialde batzuetako haur euskaldunekin elkartrukatzeko aldiak antolatu ere.
- ✓ Kultur ekintza askoren babesle eta antolatzailea izan da, horien berri bere propaganda sarearen bidez euskaldun gehienei emanez.
- ✓ Euskalgintzan diharduten beste elkarrekin batera Arabako Euskaltzaleon Elkartegunearen sortzailea izan da.
- ✓ Arabako eta Gasteizko instituzioekin harremanetan ibili da eta zenbait akordio gauzatu du (Kultura eta Gazteria Sailekin, Udal Gazetarekin...).
- ✓ "Euskararen Errealitatea Gasteizen Auzoz Auzo" aztertze lana kaleratu du Udal Gazetaren bitartez.

Datorren urterako, berriz, honako ildo nagusi



si hauek aurkeztuko dira GEU elkarteko bazkideen batzarrean:

- ✓ Orain arteko eginkizun nagusiak (hitzar-mengintza, kanpainak, aldzikaria, kultur babesa eta eragiletza, elkarte euskaltzaleekiko eta erakundeekiko elkarlana...) mantendu eta ahal den neurrian hobetu beharko dira.
- ✓ Komunikabideetarako proiektu berriak aztertzeko: bideragarriak izanez gero, planifikatu eta abian jartzen hasteko bideak jorratuko dira (horretan ariko den lantaldea osatuta badago).
- ✓ Gazteen munduan ahalegin berezia egin behar da, elkarte barruan (beraiei iniziatiba emanez) eta kanpoan, aisialdi nahiz kirol eskaintza zabala izan dezaten.

Hori guztia aurrera eramateko irudimena landu beharra dugu, geure ekimenak atsegin eta eragingarriagoak izan daitezken. Era berean, kontuan har dezagun euskaldunok batua-go egotea eta Gasteiz euskaldunago izatea direla euskararen kontra egon diren eta egon daitezkeen erasoan aurkako sendagairik onenak.

Euskaltasunaren bidean sarritan elkar ikusiko dugulakoan, ongi izan.

**GEU Elkarteko Zuzendaritza
Batzordea**

gasteizko euskaldunon aldzikaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:



6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldzikaria

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

ZKIA: _____

Pisua: _____

kalea mintzo udalaren zerbitzuez



GASTEIZ ezagutzeko aukera izan duten kanpotarrak, harritu egiten dira udaletxeak eskaintzen duen zenbait zerbitzuekin. Izan ere, edozein udaletxek eskaintzen dituen zerbitzuez gain (garraio publikoa, ur-horniketa, zabor-bilketa, trafikoa, kale eta lorategien zaintza eta garbiketa...), Gasteizko udaletxea aurrendari da kirol, kultura eta aisialdirako ekintzen antolaketan. Honez gain, Gasteizko auzoetan zehar banatutako gizartetxeak, igerilekuak, polikiroldegia... eta horietan eskaintzen diren ekitaldiak eta ikastaroak ez dira ohikoak inguruko hirietan.

Nola ikusten ditugu gasteiztarrok udal-zergen igoerak?

Bat al dator tasen igoera udal-zerbitzuen hobekuntzarekin?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu

Bertsoak

AzaRoa

EGILEA:
Beñat F.
DOINUA:
Habanera



AINHOA GLZ. de
GALDEANO
ikaslea

1. Nahiz eta oro har onak izan auzo guztietara heldu behar dira. Horrelako ekintzak gehiago indartu behar dira.
2. Diru gehiago ordaintzea ez zaio inori gustatzen. Zerbitzuak erabili ahal izateko, ez da beharrezko horrenbesteko igoera.



Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu egin genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berrirori ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jaso-ko. Pazientzia izan!

Urria joan zaigu eta azaroa etorri da jada ailegatu gara udazkenaren erdira hiriko parkean nago datorrenari begira zuhaitza naiz eta ezin dut ihesi joan mendira

bakardadean pentsatzen begiratu izalgira udako egun alaiak jadanik pasatu dira ezin izkutatu nire begi tristen disdira hosto guztiak erortzen zaizkit malkoak balira

Gaurkoan jende askotxo gerturatu da parkera atso zahar bat etorri da usoei jana ematera tipo bat hurreratu da "Geu Gasteiza" irakurtzera ta bi maitale etorri dira zortzirak aldera

ezin izan dut ikusi bikotearen gertaera hotza egiten duenez asko estaltzen du janzkera mutilak ikusi nau ta bueltatu dira etxera betiere gertatzen zait azaroan gauza bera

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Tu Invernadero

ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ



ANA RAMIREZ
etxekoandrea

1. Primeran daude. Pozik egoteko modukoa da.
2. Nik esango nuke nahiko altuak direla eta edozein igoera soberan dagoela.



ANA SANCHEZ RUIZ
zerbitzu langilea

1. Maila guztietan lan ona egiten ari direla ikus dezakegu.
2. Gaizki, jakina.



MARIA CONCEPCION
FERNANDEZ
etxekoandrea

1. Oso ondo, dudarik gabe. Edozein zerbitzuri buruz hitzeginda ere lehen mailakoak direla esan dezakegu.
2. Horri txarragoa deritzot. Diru gutxi daukagunontzat ezinezkoa izango da kuota garestiagoak ordaintzea.



JAVIER FDZ. de
ARANGIZ
zerbitzu langilea

1. Zerbitzu hauek lortzeko ordaintzen ditugun zergak oso garestiak izan arren nahiko majuak dira.
2. Udalak "abuso" hutsa egingo duela iruditzen zait. Horretarako beste bide batzuk aurkitu beharrean dago.



JOSE MORALES
jubilatua

1. Nire ustez oso onak dira eta dirua izanez gero udalak zerbitzu gehiago eskainiko lizkiguke.
2. Horrelako erabakiei oso gaizki deritzot hirurogeita hamar mila pezeta besterik ez dudalako kobratzen.



31. Non hil zen Samaniego alegilaria?

BIASTERIN

32. Zein da Urkabustaitz udalerriko hiriburua?

IZARRA

33. Zenbat hitz daude idatzirik Arabako armarrarian?

ZAZPI

34. Arabako zein herrian dago Bitorika izeneko zubi erromatarra?

LAUDION

35. Zenbat legebiltzarkide ditu Arabak Euskal Autonomi Elkarteko Legebiltzarrean?

HOGUITABOST

36. Nor da Arabako historialaririk nagusiena?

JOAKIN JOSE DE LANDAZURI

37. Zein ibai igarotzen da Fontetxa herritik?

EBRO IBAIA

38. Zein da Oiongo jaietan pertsonaiarik nagusiena?

KATXI

39. Zein herritan dago Mantible izeneko zubi erromatarra?

ASA

40. Zein da Arrazua-Ubarrundia udalerriko hiriburua?

DURANA

araba gure lurra txapelketa

Sail honetan sariak izango ditugu. Erantzunak baldin badakizkizu, bidali postal batean (zenbat eta orijinalagoa hobe). Zinemarako txartelak irabaz ditzakezu

1. Nola zuen izena Gasteizko katedrale zaharrean lurperatutako azken gotzaiak?
2. Zein urtetatik zein urtetara izan zen Arabako Diputatu Nagusia Ramón Ortiz de Zarate jauna?
3. Badaia eta Arkamo mendizerren artean bailara polit bat dago. Zein?

HONAKO HAUEK DIRA URRIKO ALEAN ZOZKETATURIKO ZINEMARAKO TXARTELEN IRABAZLEAK. HURRENGOKOAN ZU IZAN ZAITEZKE:

Esther Gartzia de Bikuña
Oskar Santos Martin

GUÑIDI

SAMANIEGO

MENDIRIK MENDI



Entzia-Baio



araba eta Nafarroaren arteko eskualde menditsu bat agertuko dizuegu segidan, labur-labur bada ere. Hodei-zeroak urratzen dituzten gailurrak ez ezik, gizakiaren lehendabiziko urratsetara hurbilduko gaituzten aztarnak ere miretsi ahal izango ditugu Euskal Herriko txoko liluragarri hauetan. □

ZUHAITZEZ beteriko mendilerro luze bat doa, 80 km-tan zehar, Gasteiz ingurutik Iruñearen atariraino. Norabide bati zehatz-mehatz jarraitzen zaio, sortaldetik sartalderantz edo alderantziz baitoa mendi multzoa. Zadorra ibaiaren arroare-

geu gasteiz
aldizkaria

**PUBLIZITATE
TARIFAK**



Kontrazala

18 modulo: (3 x 6) 45.000 pta.

Azal edo kontrazal barrukoa

18 modulo: (3 x 6) 35.000 pta.

9 modulo: (3 x 3) 20.000 pta.

Barruko orrialdeak

orrialde osoa
18 modulo: (3 x 6) 30.000 pta.

orrialde erdia
9 modulo: (3 x 3) 15.000 pta.



azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA



izozkiak

kin muga egiten du Araban. Nafarroa aldera sarturik, ordea, Arakil ibaia du zedarria, Arga ibaiaren adarretariko bat, alegia.

1.000 m-ko altitudetan direla, elkarren antza handia duten mendizerra batzuk esteikaturik daude elkarrekin. Haien artean ere ez da igarobide garrantzitsurik antzeman. Karezko aldatz luze batek zorrotzago egiten ditu iparraldeko mendi-gailur batzuk, batez ere Opakua eta Urbasa.

Entzia mendizerraren mendirik aipagarrienak Baio (1.193), Mirutegi (1.166) eta Surbe (1.154) ditugu, Done Emiliaga udalerriko herrien goialdean bildurik, Araba eta Nafarroako mugarteetako lur-sailetan.

Mendizerraren erdialdean belardi eta basoak daude. Batzuek besteko altitudeta: 900 m. Hegoalderantz eginez gero, Arana bailara (Araba) eta Amezkua (Nafarroa) ikusiko ditugu goitik.

Mirutegi haitzaren magalean, Hegiraz herritik gertu, Aizkomendi izeneko trikuharria miretsi ahal izango dugu. Ezohizko neurria duen trikuharri hau 1831ean aurkitu zuten. Sartalderago, Arrizalatik oso hurbil, beste monumentu megalitiko bat ere ikus dezakegu: Sorginetxe izeneko trikuharria, irtengune txiki batean tinkaturik, Aizkorri mendizerra aurrez aurre duela.

Iñaxio Lopez de Arana

Bestelako moduloak

modulo 1: (1 x 1)	2.000 pta.
2 modulo: (2 x 1 edo 1 x 2)	5.000 pta.
3 modulo: (3 x 1 edo 1 x 3)	5.000 pta.
4 modulo: (2 x 2)	7.000 pta.
6 modulo: (3 x 2)	10.000 pta.



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

igande arratsaldea



IGANDE ARRATSALDEA genuen, bai, baina ez ohikoa, ez arrunta. Egun seinatua hura, batez ere kirol zaleentzako eta bereziki txirrindularitza maite dutenentzako.

Urriaren zortzia. Munduko txirrindularirik onenak Kolonbian zuten zita nagusia: **MUNDUKO TXAPELKETA**. Eta izen ospetsu guztien artean, nahiz eta Espainiako selekzioaren barne joan, sei euskal ordezkari. Berrehun eta hirurogeita bost kilometroko ibilbide gogorrari ekin beharra zegoen, zazpi ordu luzez bete beharreko lan eskerga. Adibide gisa: helmugara soilik hogeitaz iritsi ziren.

Baina ez da, ez, hau nire **ZURRUMURRUETAN** azaldu nahi dudana, guztiok eta oso ongi baitakigu Ameriketako lur haietan gertatua, lur garai haietan. Harro sentitzen baikara euskaldunok.

Kuadrilatxoa ginen, ardo batzuk hartuz, gure mutilen gupilei so, begiak ere kliskatu gabe taberna muturrean ginenok. Pozik eta urduri. Baina arratsaldeko zazpi terdiak jo bezain pronto, sartu berriak ziren hiruzpalauk, telebistara hurbildu eta "zast", "Canal +" non jartzen diguten. Hasiera batean bromaren bat zela uste bagenuen ere...kia! Real Madrid ikusi nahi zutela gure mutilek... Alperrik azaldu futbola astero eta nahi adina zutela... Munduko txirrindulari txapelketa urtean behin ordea... Alperrik aipatu sei euskaldun zebiltzala, mutur muturrean gainera... Guk adina eskubide omen zuten eta txirrindulari euskaldunak



zebiltzala...? Bost axola! Berak espainolak omen ziren...

Harrituta geunden. Taberna hartan gehiengo handia ginen, baina istiluak ekiditzearren, beste ostatu batera hurbildu eta gure mutilen garaipen historikoa dastatu ahal izan genuen.

Ez nuen uste oraindik tankera horretako pizti arrarorik izan zitekeenik... Baina sinetsi lagunok, badira. Dena den izan genuen gozamenarekin berehala ahaztu ginen txotxolokeria hartaz.

Eta nola ez .GEU GASTEIZ aldizkari euskaldun honen bitartez, zorionak sei **EUSKALDUNOI**, denok merezi baizenuten **URREA**.

Abel Enbeita



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

«NATURA IKERTZEKO ZENTROA ERAIKIKO NUKE»

Jon Saenz

* Donostian jaio zen Jon Saenz Gordo, gurasoak Gasteiztik Gipuzkoako hiriburura aldatu zirenean. Dena den, ez du bere burua donostiartzat. <Gipuzkoarra. Donostia hiri arraroa da; polita baina ez dut oso gustokoa>.

* Adurzan bizi da Gasteizen dagoenean. Hirurogeita hamabi auzo edo dira etxepean eta bi ei dira euskara hiztunak.

* Lanean da Gasteizen duela hamar urtez gero, lorazaintzan. Zenbait langileren ardura du. <Taldeburua naiz. Gasteizko lorategietan egiten dugu lana>. Euskal girorik ez dute. <Rikardo Gz. de Durana izan ezik. Duela urte batzuk euskaldun gehiago geunden baina pixkanaka-pixkanaka joaten ari dira>. Langile berriek, aldiz, ez dute euskara ikasteko aukera handirik. <Goiko mailakoa baldin bazara, laguntza osoa duzu. Lorazaina edo laguntzailea edo bazara, nagusiek oztupoak besterik ez dizkizute jartzen. Oztupoak jartzen dituzte: lagundu beharrean, zigortzen zaituzte>. Euskara ikasten ari zirenek ere utzi omen diote.

* Hainbat lekutan ikasi du euskaraz. <Lazkaon, Lesakan, Errezilgo baserri batean, Gasteizko euskaltegietan: AEKn, HABEn...>. IKAn ez. <IKA sortu zenerako EGA neukan, zorionez>.

* Ibiltari amorratua da baina ezinean dago, belaunetik baitabil. Urtarrilean kolpatu zuen izterra eta, ondorioz, belauna behartu zuen. <Lanean zutik egon behar dut baina, oraintxe, bizikletaz joateko gogoak nago. Horrek esan nahi du hobeto nagoela>. Duela hiru hilabete arte baimena eskatu behar izaten zuen, lanean, tartean-tartean jarri eta atseden hartzeko. <40 urte dauzkatz eta zaindu beharra daukat. Gainera, asko gustatzen zait mendira joatea eta oinez ibiltzea>.

**Duzun biziorik handiena?**

Natura. Musika ere bai.

Eta bertutea?

Asko neukan aspaldian baina pixkanaka-pixkanaka galtzen ari naiz. Pazientzia, beharbada, eta konstantzia. Zerbait nahi dudanean aspertu arte borrokatzen naiz.

Famatu adiskide baten izena eman behar bazenu?

Andoni Egaña, adibidez.

Zer eskatzen du herriak?

Zein herrik? Ondo bizitzea.

Zer eskatzen diozu zuk zeuk bizitzari?

Aita naizenez, bi seme-alabek beren bizitza ondo bideratzea.

Eta eskaini?

Neure lana. Gasteizko lorategiak hobeto daude orain. Batzuetan nahiko lan polit eta zailak egin ditut.

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

Vitoria-Gasteiz ondo geratzen da, baina hobe da motzagoa: Gasteiz, nire ustez.

Jeniorik bai al duzu?

Nahiko lasaia naiz baina batzuetan ateratzen dut; orduan, nire buruarekin haserretzen naiz.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Ezjakin harroek. Batere ez jakin arren asko dakitela uste dutenak. Min handia egiten dute.

GEU elkartearen berririk bai?

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

Bai, jasotzen dut aldizkaria. Mugimendu pobreak dira baina ez dago beste erremediorik. Borondatez arituta...

Egunkariren bat?

'Le Monde' gustatzen zitzaidan. Hemen ez dago egunkari onik. Denak oso politizatuta daude.

Telebista programarik?

'Taratata', Frantziako telebistan.

Oporrak non eta zertarako?

Seme-alabak oporretan direnean, beraiekin egoteko. Eta bidaiak egiteko.

Etxeko lanak noren kontura?

Emazteak.

Jaki goxoren bat.

Sagar erreak.

Filmeren bat?

Asko daude. Adibidez, duela gutxi ikusi nuen telebistan 'Akelarre'.

Txikitako oroitzapenik?

Bederatzi urterekin gurasoek Parisa eramanez nindutenean, Euskal Herria utzita. Oroitzapen txarra dut. Ez zen esperientzia polita izan.

Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

Gizon-emakumeen pentsakera. Gero eta geurekoiagoak gara. Auzokideen artean ere ia ez dago harremanik.

Munduan den denbora guztia izanez gero, zer edo nora; edo zertarako?

E. Denbora... eta dirua. Denbora ezezik dirua behar da! Ekologiari buruzko ikerketak egiteko zentroa eraikiko nuke.

Liburu gomendagarriren bat? Idazleren bat?

Literaturan 'Obabakoak'. Liburu teknikoak, hainbat.

Idoloren bat?

Orain ez. Gaztetan Pink Floyd taldeak eragin handia izan zuen nire bizitzan.

Zer nahiko zenuke jendeak zutaz esatea zu hil eta gero?

Orain esaten dutena: nahiko jatorra naizela. Jendea pozik ohi dago nirekin. Ez dut etsai berezirik.

Zein da zure maitasun egoera?

Adiskiderik bai ezkutuan?

Ongi nago emaztearekin. Lankideek esaten didate maitalea behar dudala, baina

ez, ez.

Zer zinateke lorazain ez bazina?

Ekologo. Lorazain naiz ez zegoelako besterik.

Gasteizen biziko ez bazina?

Oiartzunen. Hanka bat dut leku bakoitzean.

Gasteizek duen onena?

Hiri eroso da, lasaia, berrehunda gehiago biztanle izan arren.

Nolakoa litzateke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Thatcher eta gobernatzen hasi zirenean, gizonezkoen ereduak segitu dute. Gizonduek egiten dira eta galdu egiten dute. Beren ereduari segituko baliote, gerra gutxiago izango genuke.

Zein da gobernuen funtzioa?

Zergak eta kobratzea. Akrata samarra naiz eta ez ditut maite gobernuak eta. Nahiago nuke arazoak guk geuk konpontzea, gobernu handi horiek gabe.

Zertan da emakumearen berdintasuna?

Ematen du beraiek ere lana izan behar dutela, dirua jaso, independente izan... Baina Frantzia aldean emakume asko ezagutu dut etxetik kanpo lan egin nahi ez duena. Nahiago dute etxean gelditu eta seme-alabak hazi. Askorentzat, etxetik kanpora lanera joatea ez da askatasuna...

Euskal Herriak duen arazorik larriena?

Konpontzeko giltza? Bakearen bidea?

Perspektiba politikorik eza: autonomistak, independentistak, espainolistak, autodeterminaziozaleak... Hasteko, Euskal Herria zer den ere ez dakigu: non hasten den eta non bukatzen, hiru probintzia, edo lau, edo zazpi... Ez dago Euskal Herririk, hori da larriena.

Zer da 0.7?

Kontzientzia zuritzeko zer edo zer.

Zoriontsu izateko sekretua?

Nor bere buruarekin ados egotea.

Zein galdera nahi zenuke nik zuri egitea?

Erantzunik gabeko galderaren bat. Galdera onak badira; zaila erantzunak aurkitzea da.

Miel Anjel Elustondo

Zein bere lekuan

GURE IKASTOLETAN, euskaltegietan

edota edozein kale-kantoitan nornahi beldurtzeko moduko akatsak entzuten dira, hizkuntzaren zuzentasunaren aldetik. Baina, Gasteizen gaude eta badakizu... edota kontua euskaraz egitea da eta kitto! gisako esaldiak ere aditu ditugu bazterrotan. Bai, hori, neurri batean, egia izan daiteke, baina ez. Euskarak, hizkuntza guztiek bezala, bete beharreko arauak ditu, hizkuntza denez gero. Gure esku dago hain hedaturik dagoen sasi-euskara (edo euskañola) alde batera utzi eta euskara txukun eta apaina erabiltzeko. Lantegi hori pittin bat errazten laguntzea da zutabe honen helburua, ez besterik.

OKER BATZUK:

*Ya dakit (gaizki)

Badakit

*Nire aitak etorri dira (gaizki)

(Nire) gurasoak etorri dira

*Bilera bat ospatu zen. (gaizki)

Bilera bat egin zen.

*Industri susperraldi baterako

baldintzak ematen dira hemen.

Industri susperraldi baterako

baldintzak biltzen (edo gertatzen) dira hemen.

*Nik ez dakit ezer ez. (gaizki)

Nik ez dakit ezer.

EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIO BATZUK:

Partitiboa baiezkotzeko esaldietan

Zerbait nabarmendu nahi denean, enfasia duenean: bada alderik!; bestela, sobera da.

Hiru kiloko/*hiru kilotako

Hiru kiloko hobesten da; bi kilometroko ibilbidea. Hiru orduko tartea.

Betiko /*betirako

Hobe betiko; sekulako, geroko erabiltzen diren moduan.

-tazko

Zinezkoa, egiazkoa... baina benetakoa, txantxetako..



argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komuniok, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industriala

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA

ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

311 ERTZAIN DAGO GASTEIZEN LANEAN

ertzainak Gasteizko kaleetan

g

asteizen sartzearekin batera amaitu da Ertzaintzaren hedapena Euskal Autonomi Elkarte osoan. Gure hiria izan da azkena. Aitzakia hori ahotan hartuta, Arkauten izan gara Enrike Sarasa Gasteizko komisaldegiko buruarekin solasean. Gai ugariz aritu gara, euskaraz, patxada ederrean □



IRAILAREN 1 EAN Gasteizen Ertzaintza hedatu zenetik, 311 ertzain ari dira lanean gure hirian. Hedapena dela eta ordurarte polizia nazional eta munizipalen ardurapean zeuden zeregin asko Ertzaintzaren eskuetara igaro dira.

Orain polizia bakoitzari dagokion arloa zein den zehazki finkatu behar da. Horretarako Udaltzaingo eta Ertzaintzaren koordinaziorako komisio bat osatu da, eta negoziaketan ari dira Gasteizko komisaldegiko buruak adierazi digunez: "Une

“kaleak zaintzen behar ditut ertzainak eta ez furgonetetan sartuta”

honetan negoziaketetan gaude udaltzainekin funtzio bikoizketarik egon ez dadin eta bakoitzak bere arloan lan egiteko”.

Komisio honen helburua haxe litzateke: ertzainak batetik eta udaltzainak bestetik bere kasa lan berdina egiten ez aritzea. “Zenbait herritan Ertzaintza sartzerakoan funtzio berberak egiten dituzte eta Gasteizen alkateak ez du nahi horrelakorik gertatzerik. Legez polizia munizipalak dituen kompetentzietan udaltzainak profesionalizatu eta Ertzaintza bere gauzetarako utzi nahi dira. Ertzaintza Gasteizen sartu aurretik eta hori abian jarri bitartean protokolo bat sinatu genuen Ertzaintzak eta Udaltzaingoak”. Bi erakundeen arteko harremanak onak dira eta ez dago arazo-

rik. “Azken bi urteetan 50 ertzain aritu dira udaltzainekin eta harremanak oso onak dira. Bakoitzari dagozkion kompetentziak zein diren garbi dago eta ez dago arazorik”.

Hiri baketsua

Gasteizek hiri lasai eta baketsua izatearen ospea du eta komisaldegiko burua ere iritzi berekoa da. Hala ere, delituak egon badaude eta ertzainen lana horiek gutxitzea litzateke. “Gasteiz hiri baketsua da, ez dago delitu arazo handirik. Nolanahi dela ere, nahikoa izaten da bazterren batean delitu txikiren bat, inguruan alarma sortzeko. Gure lana delikuentzia hori gutxitzea izango da”.

KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 T.FNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20mx11m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia) • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami-gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrean iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia •

ETA LASTER: Padel-pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

“arazoa ez da polizia gehiegi egotea baizik eta uniforme asko dagoela”

Enrike Sarasak aitortu digunez, oro har, gasteiztarrek Ertzaintzari eginiko harrera espero baino hobea izan da, lehenengo asteburuko istiluak alde batera utzita. “Alde zaharrean lehen gaueko iskanbilak nahiko larriak izan ziren. Askotan esan dut ez ditudala eduki nahi ertzainak furgoneta batean sartuta alde zaharrean. Azken finean, batzuek kontrakoa uste arren, inori ez zaigu gustatzen horrelako istiluetan aritzea”. Ertzainak bestelako lanetan eduki nahi ditu berak. “Nahi nuke ertzainak parkeetan egotea, bertan iluntzetan jendea lasai ibil dadin. Era berean, industri poligonoei urte askotan ez dute inolako laguntzarik jaso eta lapurketak ugari izan dira. Eta nahi nuke ertzainek prebentzioa egitea. Kaleak zaintzen behar ditut ertzainak eta ez furgonetetan sartuta”.

Uniforme asko

Ertzaintzaren hedapenarekin gure kaleetan polizia gehiago ikusten dugu eta behar bada inork pentsa lezake inguruan polizia gehiegi dagoela. Gasteizko ertzainen buruak ere uniforme asko dagoela uste du. “Arazoa ez da polizia gehiegi dagoela baizik eta uniforme asko dagoela. Hemen, Gasteizen, polizia nazionalak, goardia zibilak, miñoiak, munizipalak, ertzainak... sekulako uniforme pila dago. Nire ustez, azken batean zera egin beharko genuke; guztiei uniforme bera jarri eta gero bakoi-tzari bere espezialitate edo konpetentzia eman”.

Serioago jarritz, ordea, honako hau gehitzen du: “Zentzuz jokatzeko gero, Ertzaintza hedatzen den unean Polizia Nazionalak desagertu edo behintzat bere konpetentzietan sartu behar luke eta Goardia Zibilak berdin. Arazoa da ez direla joaten eta horregatik dago beste herrialdeetan baino polizia gehiago; baina ez



lehen aktuazioa

HERRITARROKIN harreman zuzenagoa izateko bulego bat ireki zuen Ertzaintzak Olagibel kalean irailaren batean. Gaurdikoa hamabietan, pertsianak ireki orduko, atearen bestaldean zain zegoen emakumea barrura sartu zen denuntzia bat jartzeko asmoz.

Senar-emazte arteko istiluak, antza. “Senarrarekin izandako arazoak zirela eta emakume bat etorri zitzaigun denuntzia bat jarri behar zuela esanez. Horretan ari ginela, hara non, senarra agertzen den oihuka, garrasika, iskanbila batean. Tartean sartu eta elkarrizketa luze bat izan genuen biekin. Azkenean, arazoa konpondu zen eta denuntziarik jarri gabe joan ziren”.

Horixe, Gasteizko komisaldegiko buruak kontatu bezala, Gasteizen Ertzaintzak egindako lehen eginkizuna

ertzainak polizia gehiegi dauzkalako. Hori bai, denak alkartuta izugarritzko polizia mordoa ateratzen da bazter guztietatik”.

Gasteizko komisaldegarekin Ertzaintzaren hedapena Euskal Autonomi Elkarte hiru lurraldeetan amaitu da dagoeneko. Gasteizkoa Ertzaintzaren 27. komisaldegia izan da, azkenekoa. Ertzainen promozioak ere amaitu dira jadanik. “Orain arte, promozio berriak ateratzerakoan kriterio nagusia kantitatea izan da; hemendik aurrera erakunde barruan kalitatea lortzea izango da helburua”.

Xabier Zabaleta

istitales

**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ



e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

ITZULKA



Diego Martínez de Alava, 7 3. esk
Tfnoa. 27 44 26
01004 GASTEIZ



Arabako II. trikitilari eguna



araban trikitixa indarberritzeko lanean diharduten lagunak ekarri ditugu orri hauetara. Legution izandako Arabako II. Trikitilari Egunaren antolatzaile batekin hitzegin dugu eta berak egun hartan gertatutakoak kontatu eta trikitixaren egoera azaldu dizkigu.

ERRANDO Lopez de Luzuriaga, 21 urte besterik ez izan arren, trikitilari trebea da. Bederatzi urte dira trikitixa jotzen hasi zela eta iadanik trikitixa irakaslea da. Arabako trikitixa elkarteko partaide da eta txapelketaren batean parte hartu izan badu ere, nahiago du jaietako giroa. "Ni ez naiz txapelketa zale nahiz eta horien kontra ez egon".

Urriaren 7an ospatu zen, Legution, Arabako II. Trikitilari Eguna Udalak babesturik, goizeko 11etan partaideen bilkura egin zen herriko plazan eta ondoren

kalejiretan dantzatu ahal izan zuten herrian zehar; horrekin batera, Otxandio, Elosu, Ubidea, Urrunaga eta Urbinan ere antzeko ospakizunak izan zituzten. Eguerdiko ordu bi terdietan partaideentzako bazkaria egin zen. Handik ordubetera, trikitixa-jaialdia egin zen herriko plazan. Bertan, Durango, Agurain, Pagotxueta, Amurrio, Arrasate, Gasteizko trikitixa eskola, Arabako Trikitixa

“trikitixa ez da soilik etxean jotzeko, ilusioa behar da edozein lekutan eta edonoiz jotzeko”

Elkartea eta Gasteizko folklore akademiko trikitilariak aritu ziren. Legutioko Trikitixa Eskola eta Arabako Trikitixa Elkartea izan ziren antolatzaileak.

Euskal giroa

Errandok aipatu digunez jaialdi honen helburua trikitixa Araban zabaltzea da: "Trikitixa aldarrikatu behar dugu. Horrez gain, beste musika ekitaldiekin egiten den antzera, trikiti jaialdiek komunikabideetan ohiartzun haundiagoa izan beharko lukete jendeak gehiago ezagut ditzan". Jaialdiaren ondorioak oso onak izan dira



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005
GASTEIZ

trikitixa euskal munduarekin guztiz lotuta dago

Errandoren ustez: "Jendetza handia bildu zen Legutien. 150 parte hartzaile inguru eta bazkarian guztira 250 lagun elkartu ginen. Giroa ere aparta izan zen. Legutio batean halako mugimendua egotea polita da".

Euskal giroaz hitzegin digu Errandok, bere ustez trikitixa eta giro euskalduna lotuta baitaude: "Trikitixa euskal munduarekin guztiz lotuta dago". Eta horrelako jaialdietan sortzen den giroa goraiatzeko du, "Jaialdi hauetan trikitilarien artean oso giro jatorria izaten dugu eta kanpokoen artean ere harreman ona sortzen da".

Trikitixa berreskuratu

Arabako Trikitixa Elkarteak orain dela bi urte sortu zen. Bi urte hauetan, halere, nahi baino motelago aritu dira. Bazkideak bildu behar izan dituzte piskanaka eta hori lan handia izan da, baina orain laguntza majua dute. "Gure elkartearen helburua Araban trikitixa ez galtzea da. Horrekin batera jaietan joz eta ateraldiak eginez, trikitixa indarberritu nahi dugu. Hemen adibidez jaietan trikitixa galduta zegoen eta orain berriro ere jai giroan sustatu behar da, trikitixak bere lekua har dezan".

Trikitixaren inguruan dabilzan gasteiztar eta kanpotarrek sortu dute elkarteak. Erakundeetatik jasotzen duten dirulaguntzaz gain bazkide bakoitzak aportazio sinbolikoa egiten du. "Instituzioek diru gehiago eman beharko lukete eta Euskal Herriko kultura gehiago baloratu beharko litzateke. Beste kontu batzuetarako dirutza haundiak izaten dituzte. Ate asko jo behar izaten da diru apur bat lortzeko, eta alde horretatik nahiko penagarria da".

jaietan joz eta ateraldiak eginez, trikitixa indarberritu nahi dugu

Trikitixa hemengoa?

Errandok trikitixak Euskal Herriko kulturaren duen garrantziaz zera esan digu: "Euskal Herriko kulturaren edozein instrumentu autoktonok daukan garrantzi bera du. Agian ez da hain instruktiboa instrumentua bera, antzeko musika tresna jotzen dutelako Italian, Frantzian, Irlandan... Baina trikitixa Euskal Herrikoa da dudarik gabe; ez dauka antzik inongo musikarekin". Beraz, desberdindu egin behar ditugu instrumentua -soinua eta panderoa-alde batetik, eta musika -trikitixa- bestetik. Instrumentuen jatorria kanpokoa izan daiteke baina musika hemengoa da".

Azken boladan badirudi trikitixak une gozoak bizi dituela. "Azkeneko bost urte hauetan trikitixak egundoko gorakada izan du. Hortxe izan ditugu Gozategi anaiak Euskadi Gazteko lehenengo postuetan. Kepa Junkerak ere Espainiako konpositoreen konkurtsoa irabazi berri du". Araban, halaber, nabari da gorakadaren eragina. "Bizkaia eta Gipuzkoarekin oso azkar parekatzen ari gara. Oso erritmo ona hartzen ari da trikitixa Araban". Hala eta guz-

tiz ere ikastoletan euskal kultura gehiago sartu beharko litzatekela iruditzen zaio Errandori: "Umeak ikastoletan hezi egiten dira baina zehazki arte eta musika arloan ez da ia ezer egiten".

Kanpotik ikusita zaila dirudien arren, "ez da dohain berezirik behar soinua jotzen ikasteko" dio Errandok. "Edozein gauzatan bezala, gogoia behar da eta musika nozio batzuk". Baina, batez ere, funtsezkoa trikitilari batek inizatiba izatea dela azpimarratu digu. "Garrantzitsuena ez da ateraldi antolatuetan jotzea; ilusioa behar da lagun artean, afarietan.. jotzeko. Ez da nahikoa etxe zuloan edo ekitaldi berezietan trikitixa hartzearekin. Eta hori ulertzen ez duenak trikitixaren filosofia ez du ulertzen".

Gurekin izandako berriketaldia jendea animatzeko aprobetxatu nahi du: "Jendea trikitixa jotzera animatu nahi dut. Dirudien baino errazagoa da, gogoia eta denbora apur bat hartuz gero. Eta euskal kultura zabaltzeko posibilitate bikaina da."

Susana Calleja



HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18

Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05


Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92

Eguneko menua

MIKELIN: jai alternatiboa



iraileko azken astean, urtero bezala, berriro izan dugu Abetxukon Mikelin jaialdia. Aurten etxebizitzaren eskubidea aldarrikatzea izan da jai horren helburu nagusia. Egin diren kontzertuez gain, ihardunaldi batzuk ere antolatu dira. Aurtengo Mikelinaren balantz bat egiteko asmoz Marga Matxo abetxukoarrarekin hitzegín dugu,

MIKELIN jaia dela eta hainbat ihardunaldi antolatzen dira urtero Abetxukon. Aurten besteak beste antzerki eta kontzertu emanaldiak ikusteko aukera izan dugu: Betagarri, Piperrak, 'Salvate si puedes', eta beste talde batzuk parte hartu dute. Aurtengo Mikelin honen gaia etxebizitza izateko eskubidea izan da.

Mikelin jaien egitaraua Abetxukoko Auzo Elkarteak, Gazte Batzordeak, Etxebizitzen Batzordeak eta Ekimen Etxeak antolatu dute. Dena dela, badago bere kabuz parte hartzen duen jendea ere.

“**Oso interesgarria da ekitaldi alternatiboak antolatzea**”

"Mikelin el casero"

1988. urtean egin zen lehenengo Mikelin jaia. Margak azaldu digunez, garai batetan Abetxukoko festak San Miguel egunean egiten ziren. Geroago data aldatu zuten eta orain jai ofizialak maiatzean egiten dira. Ohitura hura berreskuratu nahian jai berriak irailean, San Miguel egunaren

inguruan, egitea bururatu zitzairen. Jai alternatiboak izango zirenez, izena aldatzea erabaki zuten eta San Miguelen ordez Mikelin izena jarri zioten. "Gainera urte hartan Potato taldeak 'Mikelin el casero' abestia atera zuen, eta Abetxukon ibiltzen zirenez eta bertan ensaiatzen zutenez, azkenean jaiek Mikelin izena hartu zuten".

Lehenengo Mikelin hori egin zenetik hona gauzak aldatuz joan dira, eta urtero gai baten inguruko aldarrikapenak egin ohi dira: arrazakeria, gutxi batzuren aberastasuna beste askoren pobreziaren

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea
Kutxileria 23

PORTAL DEL
REY
GASTEIZ



«Etxebizitzaren arazoa salatzea izan da aurtengo helburua»

aurrean, Banku Mundiala eta Nazioarteko Diru Fondoa, emakumearen egoera, eta bestelako arazoak salatu dituzte Abetxukon Mikelin jaia aprobetxatuz.

Etxebizitza eskubidea

Aurten etxebizitza izateko eskubidea izan da jaiaren lelo nagusia. Abetxukon azken urte hauetan etxebizitza lortzea arazo bihurtu da; ez omen dago etxebizitza librerik, eta jende askok, gazteak batez ere, alde egin behar izaten du. Auzo elkarteak arazo horri irtenbide bat bilatu nahian etxebizitzak eraikitze ko-operatiba antzeko bat egitea erabaki zuen. Margak esan digunez "ideia horren inguruan herrian deialdi irekia egin zen jendea biltzeko. Oso zaila da horrelako ideia bat aurrera ateratzea, batez ere ez dakigulako ondo zer egin behar dugun. Baina badirudi proiektua aurrera doala".

Herritarrek izango dira kooperatiba horren ardura hartuko dutenak. Abetxukon aurten egitasmo hori izan da proiekturik berriena eta interesgarriena, eta horregatik aukeratu dute Mikelin hauetako gai nagusitzat.

Marga 1990. urtean hasi zen Mikelin jaiaren antolakuntzan. Urte horretan herriko talde guztiek hartu zuten parte. "Oso ondo atera zen" dio Margak "eta kontzertuetara jende asko etorri zen, 14 mila pertsona inguru; hurrengo urteetako Mikelinera, ordea, jende gutxiago etorri da".

Aurten, Abetxukon etxebizitzaren arazoa dagoenez, jende gehiago apuntatu da antolaketa lanetan laguntzeko. "Normalean beste urteetan parte hartu ez duen jendeak ere lan egin du". Ihardunaldietan, batez ere, Abetxukoko jendea agertu den

arren, parte hartzea, oro har, nahiko ona izan da, Margaren ustez.

Kontzertuetan, berriz, aldaketa handia egon da. 1990. urtean jendetza handia bildu bazen ere, orain ez da horrenbeste jende biltzen. "Jendea ez da horrenbeste mugitzen kontzertuetara joateko. Orain gehienak ez datoz gaiarekiko kontzientzia duelako, baizik eta Mikelin delako edo egun horretan jotzen duten taldeak gogoko dituelako. Dena dela, denetarik dago".

Gastuak ordaintzeko dirua

Ez dira etekin haundiak ateratzen, eta ateratzen dena herriko taldeentzat izaten da. Aurten Ekimen Etxea martxan jarri berria denez, planteatu zuten dirua atera ezker proiektu hori aurrera ateratzeko izango zela. "Kontzertuak antolatzea inbertsio handia da, eta jendearen erantzuna eskasa bada, dirua gal dezakegu edo gastuak ordaintzeko baino ez dugu ateratzen".

Dena dela, normalean, gai jakin bat aldarrikatzeko egiten den kontzertua dela eta, musika taldeek laguntzen dute eta gutxiago kobratzen dute; hala eta guztiz ere, asko da ordaindu beharrekoa, eta

aurten gastuei aurre egiteko baino ez dute atera.

Margak positibotzat jotzen du Mikelin jaia urtero antolatzea: "Jendea gero eta gutxiago mugitzen gara, eta nire ustez oso interesgarria da ekitaldi alternatiboak antolatzea, jendea animatu nahi nuke horrelakoak egitera".

Oraindik ez dute erabaki zein izango den datorren urteko Mikelinaren gaia. Margak esan digunez aurten denboraz larri ibili dira eta hurrengo urtekoa lehenago prestatzen hasteko asmoa dute, jaiak hobeto atera daitezen; hala izan dadila.

Itziar Mtz de Santos



EGINEN BETAGARRI DEITZEN DIETE



HAIK, BERRIZ, BETAGARRI DIRELA ESATEN DUTE



BAINA BADAIGU BETI ESARRI DIRELA



GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Txema Ramirez:

ekologista informatiboaren bila

PRENTSA BULEGOAREN GARRANTZIA DATUETAN

Etxe Zurian lan egiten duten 10 funtzionarietatik 4k zerikusi zuzena du komunikazioaren munduarekin

Gaur egun komunikabideetan politikaz argitaratzen diren berrien %52 prentsa bulegoek sortzen dute.

Ekonomiaz Estatuan argitaratzen diren egunkarietako kazetari bakoitzeko hiru kazetari dago enpresa munduan aholkulari lanetan.

Azken urteotan Estatuko 500 enpresa garrantzitsuenetan kazetariak daude lanean.

INFORMAZIOAREN alorrean azken urteotan agertu diren joera atzerakoiek kezkaturik daukate Txema Ramirez EHUKo Kazetaritza Fakultateko irakaslea. Iturri eta jabeen kontzentrazioa, informazioa ikuskizun bihurtzea, reality showak,... dira besteak beste joera atzerakoi horren eraskusle argienak. "Guzti horri aurre egiteko sistema informatibo osoaren demokratizazioari ekitea behar beharrezkoa da" dio Txemak, "eta lan hori

aurrera eramango dutenak ekologista informatiboak izango dira".

"Intoxikatutako informazioaren aurka borrokatu behar dugu, baina ez bakarrik manipulazioaren aurka, komunikabide publikoetan gizarte zibilaren presentzia aldarrikatu eta exijitu behar dugu ere". Irakaslearen ustez legeak, orain dagoen bezala, ez du ezertarako balio: "EITBn, adibidez, kontseiluan politikoak badaude,

komunikazio bulegoen gaia hautatu zuen Txemak doktorego tesia egiteko. Tesia aurkeztu eta gero, gai bera aztertu zuen bere bigarren liburuan; eta orain argitaratu berri duen 'Gabinetes de Comunicación' lanaren lehen zatia ere doktorego tesi horretan oinarritzen da. Komunikazio bulegoen mundua, beraz, irakasle honen lanetan behin eta berriz ateratzen den gaia da. Bere azken liburuaren aurkezpenera aprobetxatu du GEU GASTEIZek azken aldion denon ahotan dauden gaiei buruz hitz egiteko komunikazioa, etika, iturrien kontzentrazioa,...

baina kezka bakarra hauteskunde garaian beren alderdiari zenbat minutu eskaini dizkioten neurtzea izaten da; horregatik gizarte zibilaren kontrola beharrezkoa da".

TXEMA RAMÍREZ

GABINETES DE COMUNICACIÓN

FUNCIONES, DISFUNCIONES

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

Txemaren iritziz, komunikazioa eta komunikazio gabinetak ez dira kaltegarriak: "Komunikazioa tresna bat da, ez da helburu bat, eta teknologiarekin gertatzen den bezala egiten dugun erabilpenean dago gakoa". Etikoki erabiltzen bada tresna ikaragarri ona izan daiteke komunikazioa Ramirezen aburuz, baina "kontrako eragina sor dezake gaizki erabiltzen bada edo abusua eginez gero". Prentsa bulegoekin gauza bera gertatzen da: "Ez dugu deabruak direla pentsatu behar".

Onuragarriak ala kaltegarriak prentsa edo komunikazio bulegoak izugarri hazi dira azken hamarkadan. "Asko ugaritu dira Euskal Herrian ere, baina hemen ez gara, esaterako, Catalunyan iritsi diren mailara heldu". Prentsa bulegoetan lanean diharduten kazetariei informazioa eman baino propaganda egiten dutela egotzi zaie behin baino gehiagotan: "Denetatik dago, baina propaganda egitea zilegi da. Edozein erakundek bere alde ona erakutsi nahi izatea normala da. Gertatzen dena da, gatazkaren bat sortzeko beldurrez, batzutan informazioa eman beharrean ezkututzen saiatzen direla". Orduan hasten da kazetariaren benetako lana Txema Ramirez irakasleak dioenez: "Kazetariak prentsa arduradunarengana jo, itaundu eta iturriak alderatu behar ditu".

“Medioak gero eta esku gutxiagoren eskutan daude”

Albisteak, kazetarien bila

Prentsa bulegoek lana egiten dute eta lan txukuna gainera. Bidaltzen dituzten prentsa oharak kazetaritzako idazkera errespetatuz eginak egon ohi dira eta, kazetariei berri bakoitza aitaren batean egitea eskatzen zaienez, bide laburren hartzen da askotan: berria prentsa bulegotik atera den bezalatsu argitaratzen da.



Bost aholku kazetarioi:

- ✓ kontzientzia kritikoa zorroztu
- ✓ albisteak alderatu
- ✓ ohikeriak kontrolatu
- ✓ informazio-iturri ahulenak positiboan diskriminatu
- ✓ garatu zeure agenda

Hori dela eta kazetarien lanegiteko modua izugarri aldatu da. "Garai batean kazetariak albistearen atzetik ibiltzen ziren eta egun gauzak alderantziz gertatzen direla esan daiteke; berriak dira kazetarien atzetik ibiltzen direnak". Horren ondorioz, kazetariaren lan sortzailea izugarri murriztu eta ohikeriak gehitu egin dira.

Baldintzen menpean

Kazetarien lan baldintzak eragin nabarmena du zalantzarik gabe aldaketa honetan. "Egun berriak txorizoak edo erlojuak

bailiran egiten dira eta enpresarioek, komunikabideetako jabeek, ahal den jende gutxienarekin ahalik eta orrialde edo minutu gehien bete nahi dituzte".

Bere ustez, horrek arazo larriak sortu ditzake, zeren eta komunikabideek zabalitzen duten berri kopuru handi bat prentsa bulegoek sortutakoa da: "Erakundeetako komunikazio bulegoak dira sinesgarritasun gutxien eta indar gehien dutenak. Egunkari, irrati eta telebistetako zuzendari gehienek lasai asko onartzen dute prentsa bulego instituzionalak direla komunikabideetan gehien agertzen direnak. Gobernuarenak ez diren erakundekin eta gizarte mugimenduekin, berriz, kontrakoa gertatzen da. Sinesgarritasun handia baina presentzia urria daukate presio ahalmen handiegirik ez dutelako".

Iturrien eta komunikabideen jabegoaren kontzentrazioa dela eta, informazio bera behin eta berriz jasotzen dugula uste du: "Komunikabideak gero eta jabe gutxiagoren esku daude eta hori nahiko kezagarria da. Informazio aniztasunarentzat eta adierazpen askatasunarentzat pilaketa hori oso kaltegarria iruditzen zait".

Leire Lopez de Aberasturi

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

AZOKA

deportivos

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 27.
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

mostrongotxoak:

zein telebista programa
duzue gustokoen?



Udazkenean murgildurik, telebistak ia guztion aisialdiaren hainbat ordu bereganatzen ditu. Zinema eta antzerkia entretenimendurako beste aukeren artean ditugu.

Zein da Adurtza Ikastolan zazpigarren mailan aritzen diren zenbait ikasleren aukera? Eta aktore edo aktoresarik maitagarriena?



“GOENKALE”, euskaraz ematen den bakarra delako. Zinema daukat gustokoena, akzioko pelikulak bereziki. Tom Cruise da nire aktorerik begikoena.

Ibai, 13 urte

“GOENKALE”, oso polita delako. Nahiago dut zinema telebista edo antzerkia baino, akzioko pelikulak batez ere.

Iban, 12 urte

“GOENKALE” interesgarria iruditzen zait. Zinema da gehien gustatzen zaidana. Mota guztietako pelikulak.

Oihana, 12 urte

“EL PRINCIPE DE BEL AIR” da gustokoen daukadan programa oso dibertigarria delako. Bestela zinema gustatzen zait gehien eta nire aktorerik kuttunena Brad Pitt da.

Itsaso, 12 urte

“EL PRINCIPE DE BEL AIR”, dibertigarria delako. Zinemazalea nahiz, beldurrezko pelikulak gustatzen zaizkit eta aktore guztiak atsegin ditut.

Sandra, 12 urte

“GOENKALE” dut gustokoena baina ez dut telebista askorik ikusten. Hala ere nahiago dut telebista zinema edo antzerkia baino.

Dani, 13 urte



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoirearen ertzean Tfnoa: 25 03 52

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pta.
Betiko kazuelatxoak

“SONGOKU” eta **“Goenkale”**, baina zinema da gehien gustatzen zaidana, akzioko pelikulak bereziki. Aktoreen artean ez daukat favoritorik, denak gustatzen zaizkit onak diren bitartean.

Josu, 12 urte

“GOENKALE” ikusten dut, baina baita **“Rompecabezas”** dut atsegin erantzunak asmatzea gustatzen zaidalako. Ez dut telebista gehiegirik ikusten, nahiago dut zinema, akzioko pelikulak.

Unai, 12 urte

“GOENKALE” eta **“Blossom”** seriea. Zinema da batez ere gustatzen zaidana, abenturazko pelikulak. Nire aktorerik maitagarriena Jonathan Brandis.

Estitxu, 12 urte

“ROMPECABEZOTAS” eta **“El Príncipe de Bel Air”**. Telebista zinema edo antzerkia baino gustokoagoa dut.

Iban, 11 urte

“LOS VIGILANTES DE LA PLAYA” da gehien gustatzen zaidana oso mutil politak daudelako. Zinema ere dut gogoko. Nire aktorerik maitagarriena Leonard Di Caprio da, **“Los problemas crecen”** seriea egiten duena.

Patricia, 12 urte

“SOMOS DIEZ” da nire gustoko programa. Zinema gustatzen zait ere, mota guztietako pelikulak.

Estibaliz, 12 urte

“LOS VIGILANTES DE LA PLAYA” da gustokoen daukadan programa, mutilengatik noski. Zinema asko gustatzen zait, edozein motatako pelikulak. Nire aktorerik maitagarriena David Charvet da, **“Los vigilantes de la playa”** egiten duena.

Zuriñe, 13 urte

“EL PRINCIPE DE BEL AIR” eta **“El equipo A”**, azken hau akzioagatik. Zinema gustatzen zait ere, akzioko pelikulak bereziki.

Jon, 12 urte

“GOENKALE” eta **“Superbat”** ditut gustokoenak, ondo daudelako. Zinema gustatzen zait asko. Pelikula guztiak gustatzen zaizkit. Aktoreen artean Keanu Reeves aukeratuko nuke.

Jaione, 12 urte



Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

GAUEZ

Beatriz	22 61 18		
Nekane	26 91 53	Esther	27 84 57
Eduardo	14 21 99	Imma	24 22 41
Leire	27 32 81	Idoia	24 47 79
Lorena	27 10 13	Lorena	27 10 13
Ainara	23 38 28	Ainara	23 38 28
Naiara	24 04 42	Txaro	28 08 85

ARRA-TSALDEZ

ASTEBURUAN

		Olatz	25 61 20
Oihana	25 30 35	Elena	14 37 28
Imma	24 22 41	Leire	23 12 23
Aintzane	27 09 64	Jose	
Rafa	25 22 68	Angel	27 62 41
Iratxe	24 51 81	Saida	26 58 05
Lorena	27 10 13	Idoia	24 47 79
Patrizia	27 78 19	Belen	13 65 10
Iratxe	24 51 81	Monica	13 86 40
Ainara	23 38 28	Itziar	13 86 21
Leire	23 12 23	Maria	
		Jesus	13 54 35

kanroak
geu

restaurante • jantoki
DOS HERMANAS

1887AN SORTUA • JOSE RAMON AGIRIANO
MADRE VEDRUNA 10
13 29 34 - 13 44 46



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ

Santa Luzia: Gasteizko auzo gazteenetariko bat

duela urte pare bat, gutxi gora-behera, Santa Lucia auzoa oso ezaguna egin zitzaigun komunikabide guztietan. Arrazoiak Udalak Jacinto Benavente kalean eraiki nahi zuen tunel berria eta auzokideen protestak izan ziren. Egun tunela eraikita dago. GEU GASTEIZkoak hara joan gara arazo honi buruz zerbait gehiago jakiteko, eta aldi berean, auzoa ezagutu eta zuri horren berri emateko asmoz. Horretarako Guillermo Santa luciako auzo elkarteak presidentearekin hizketan aritu gara.



SANTA LUCIA AUZOA hiriko hegoekialdean kokatuta dago, Judimendi, Arana eta Urtiasolo industrialdearen artean. Hiria alde horretara zabaltzeko toki aproposa zen. Handik gaurera, etxek hazten joan da auzoa, eta nahiko azkar hazi ere. "Orain dela gutxi bukatu ziren bi eraikin ezik, gainerako guztia nahiko azkar bukatu zuten" dio Guillermok. Gaur egun auzoak hamalau mila biztanle ditu.

Ezaugarriak.

Auzo honen ezaugarri nagusiak hauek dira: Eraikuntza guztiek hamar pisu baino gehiago dituzte, beraz, oso etxe altuak eta haundiak ikus ditzakegu.

Ez du auzoak lur eremu haundia bete-

tzen, nahiz eta oso luzea izan. Hala eta guztiz ere, hamalau mila biztanle ditu, gehienak gazteak. "Auzotarren adinaren batz bestekoa ez da hogeita hamar urtera ailegatuko" argitzen digu Guillermok.. Auzo nahiko gaztea, beraz, bere ondoan daudenekin konparatuz.

Parkerik ez du, baina baditu berdegune txikiak auzo osoan zehar. Erdi-erdian, ordea, auzoa bi zatitan banatzen duen errepidea eraiki berri duten tunelarekin.

Orain artean lotarako auzoa izan da, baina azken urteetan bere kaleetan mugimendu gehiago nabari da. Ez du beste ezaugarri berezirik, baina azpimarratzekoa da bertan bi irati emisora daudela, Gorbea eta Onda Cero irratiak alegia.

"Hau bizitzeko auzo polita da, eroso, eta oso ondo kokatuta dagoena. Berria zenean geldoa zen, baina orain mugimendua ikus daiteke kaleetan. Dena den betidanik oso ahaztuta egon da udalaren partetik, beti beren atzean ibili behar dugu zeozer egiteko, inoiz ez baita haiengandik ezer sortu" gehitzen du Guillermok.

Auzo Elkarteak.

Auzo gehienek duten bezala, Santa Luciak ere bere auzo elkarteak du. Laurogeigarren hamarkadan sortu zen, ordura arte lan horretan aritu zen kooperatiba baten lekua hartuz. Auzo elkarteak burutu zituzten lehenengo ekitaldiak 1983an antolatutakoak izan ziren.



kafetegia
taberna
ALDAPA
SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ

★ *jo ta ke*
TXAPELARRI
T A B E R N A
kutxilleria 83

**JANTZI ETA
OPARIAK**

Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ





JACINTO BENAVENTE KALEKO TUNELA

Handik aurrera serioago jarri ziren lanera, gauza berriak eginez. Hasierako jende bera dago oraindik, "zeren lagun berriak sartu badira ere, ia-ia betikoak gaude" dio Guillermok.

Elkartekoen lehenengo helburua ez zen festak eta antolatzea. Asmo nagusia hirigintza arloan sortzen ziren arazoez arduratzea eta, beharrezkoa bazen, Udalean kexak azaltzea zen. "Auzoa eraiki berria zen. Normala zenez, gauza asko konpontzeke zeuden eta auzotarron bizi kalitatea hobetu nahi genuen. Gauza mordoa egin dugu: Auzoko festak, Ihauteriak... eta beste zenbait kultur ekintza ere bai; horien artean gazte taldea eta dantza taldea sortzea aipa daitezke, besteak beste".

Kezkati agertzen zaigu Guillermo kirol gaiarekin, zeren auzoan ez baitago kirolgune egokirik ikastetxeetako jolastokiak salbu. Horrexegatik udalera jo dute kirolgunea egin dezatela eskatzeko. "Udalak egindako plangintzaren arabera, futbol zelaian dagoen tokian kirol gunea eraiki behar da, baina badirudi iritzia aldatu dutela eta orain etxe txikiak egin nahi dituztela. Hori dela eta alkatearekin eta Jesus Vazquez udaleko kirol arduradunarekin biltzea erabaki genuen. Kirolgunea egiteko beren asmoa azaldu ziguten eta orain Hirigintza zinegotziaren onspenaren zain gaude, alabaina, ez dugu uste kasu haundirik egingo digutenik".

Euskaren egoera, auzo elkarteko presidentearen arabera, ez da hain kaskarra: "Kaleetan asko entzuten da. Kontutan izan behar dugu auzo gaztea dela eta, bai, entzuten da".

David Alvez

JOAN DEN URTEAN hiri osoan tunelaren inguruan eztabaida bizia sortu zen, are gehiago Santa Lucia auzoan. Bi jarrera kontrajarri agertu ziren: batetik, autoentzat eta hiri osoarentzat onuragarria zela argudiatuz, udala tunelaren alde agertu zen; bestetik, tunelak berak ekarriko zuen trafikoaren beldur ziren auzokideak. Hauek egun haietan protestak eta manifestaldiak egin zituzten. Azkenean, ordea, udalak bere plana aurrera eraman zuen. Tunela egina dago. Hori guztiari buruz galdetu diogu Guillermori:

Nola sortu zen arazoa?

Aspalditik datorren kontua da. Larogeita batean udalaren asmoa ezagutu genuenean, alkatearekin bildu eta gure jarrera azaldu genion. Bera alkate zen bitartean tunela ez zela eraikiko esan zigun, RENFE-rekin arazoak baitzituzten. Eta horretan geratu zen dena.

Tunela egiteko lanak hasiko zirela, nola jakin zenuten?

Duela hiru urte, egunkari batean, Udalak Jacinto Benaventen tunela eraiki zezan Italiako enpresa bat kontratu zutela zioen berria agertu zenean.

Zer egin zenuten orduan?

Oso berri txarra iruditu zitzaigun, eta gure ustez tunel hori ez zen egin behar. Gure iritzia auzokideei jakinarazi genien asanblada batean, eta hor manifestaldiak eta protestak egitea erabaki zen.

Zer eskatzen zenuten zehazki?

Auzoaren kanpokaldean dagoen futbol zelaia atzekaldetik beste errepide bat egitea, trafiko handiena handik joan zedin. Guk ez genuen tunelaren beraren

eraiketa txarto ikusten. Gainera errepide hori bazegoen udalaren plangintzan.

Tunela egin zen. Zuek uste bezain txarra izan al da?

Ez da horrenbesterako, baina nabaritzen da, batez ere, ordu konkretuetan. Lehen kamioiek hiritik ateratzeko beste bide batzuk hartzen zituzten baina orain guztiak hemendik pasatzen dira. Gainera denboraren poderioz trafikoa ugarituz joango dela uste dugu, zeren oraindik jende askok ez baitu aukera hau ezagutzen.

Nola hartu du auzoko jendeak tunel berria?

Onartu egin du ez zegoelako gehiago egiterik. Orain semaforoak edota frenatzeko beste aukera batzuk ikertzen ari gara jendea lasai ibil dadin, hemen kotxeak abiadura haundiz dabilta eta.

Nola baloratuko zenuke arazo honetan udalak eta auzokideek izandako jarrera?

Udalarena haundikeria izan da, nahi izan duena egin du. Auzokideena, berriz, oso ona. Gai jakinetan jendea mugitzen da. Argi geratu da jendea auzoaz interesaturik dagoela.



ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Luzarorako dugu Konpa

bere pekatu bakarra gasteiztarra eta pilotaria izatea da. Beste edozein herritan monumentu bat izango zukeen jada bere izeneko kale batean. Baina Gasteizen bizi eta berea kirol ezezaguna delako, zestapuntako Munduko Txapelketa izan arren, komunikabideetan ia agertzen ez den txapeldun horietarikoa dugu.

GAZTEA IZANAGATIK ERE, zaila da Juan Antonio Konpañonek adinako esperientzia duen beste pilotari bat topatzea. Zaila da, oso, era berean, pilota munduan 23 urte bete berriekin horrenbeste titulu irabazi duenik aurkitzea. Baina askoz zailagoa da oraindik, maila guztietan irabaz daitezkeen titulu guztiak eskuratu eta aurtien Munduko Txapelketa Nagusian urrezko domina irabazi ondoren, pilotari honekiko izandako indiferentzia ulertzea. Puntista txapeldunak, ordea, lasaitasunez hartzen du guztia. "Omenaldiak ez ditut gustoko. Ona da hiriarentzat, ospea ematen du, baina nik ez ditut gustoko". Duela bi hilabete inguru Munduko Txapelketa izan da eta ia inor ez da horretaz ohartu. Beti egin duen

moduan berak zestapuntan jokatzen jarraitu du.

Negua badator eta injustizia guztiak ahazteko parada du Juananek. Beretzat balantzea egiteko garaia da. "Munduko Txapelketa nire biziko lorpenik goxoen izan da, batez ere denboraldi oso irregularra egin dudalako. Nire jokoa oso

erregularra da eskuarki, baina aurtien irabazi baino partidu gehiago galdu ditut. Munduko txapelketa ere kaxkarra egin genuen eta, halere, finalean sartzea lortu genuen. Finalean, berriz, aurkariak ziren faborito eta guk ezusteko galanta eman genuen."

Xisteraz jokatze beharrezkoa den



**IRUNDA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfnoa: (945) 146261 • Fax: (945) 143509
01001 GASTEIZ



“munduko aurrelaririk onena izatera heldu nahi nuke”

adina teknikaren bidez lortzen den zerbait omen da. Konparen gorakada azkarra, beraz, kasu berezia da. “Niri falta zaidan teknika indarrarekin parekatzen dut. Orain denak, bai gazteak bai nagusiak, gorputza sasoi onean edukitzeko asko zaintzen gara, baina ez diete beren buruei nik neureari esijitzen diodana esijitzen. Asko entrenatzen dut falta zaidan teknika hori nolabait indarrarekin berdintzeko”.

Mutil exigientea

Bizi duen une goxo-goxo hau pozik egotekoa bada ere, Juananek bere buruari askoz gehiago eskatzen dio. “Munduko aurrelaririk onena izatera heldu nahi nuke; hori da nire asmoa behintzat”. Ez dakigu bere asmoa lortuko duen; ez eta asmo hori denbora askoan eusteko gai izango ote den. Izan ere, bere atzetik datorren Jose Maria Konpañon izeneko 20 urteko mutil koskorrak gauzak zail jarriko omen dizkio. “Ni aurrelaririk onena izatera heltzen ez banaiz, nire anaiaren erruagatik izatea espero dut. Bera oso aurrelari ona izango da. Ez zaio erraza egin Estatu Batuetako kantxatara ohitzea, baina orain oso gustora dago han. Ziur naiz joandakoan erakutsia zuen kalitate izugarri hura, itzultzerakoan are

landuagoa ekarriko duela eta edonoren aurka garaipena lortzeko gai izango dela.

Horra hor Juanan eta Josemari, Josemari eta Juanan. Bata gaztea, bestea gazteagoa. Azkenaldian Gasteizen sortzen ari diren puntista gazteen multzo zabal baten adibide pareka besterik ez dira horiek. Baina, a ze pareka! “Eusko Pilota enpresak



Nolakoa da telebistatik agertzen ez den Konpa?

Ba, pentsa daitekeenaren kontra oso mutil ximplea da. Munduko Txapelketa irabazi eta gero ere, ez du inolako aldaketarik egin. Ez zaio burura igo.

Baina zerbaitetan izango da berezia, ez da ala?

Bai noski: bere indarrean. Izugarritzko

zestapunta izugarri bultzatu du azken urteotan. Gasteizen, horrez gain, Ibarra anaien eskola dugu eta oso lan majua egiten ari dira.” Momentuz Munduko txapel bat ekarri digu. Gero datozenak datozela ongi etorriak izango dira. Argi dagoena hau da: lasai egon gaitzkeela, Konpa luzarorako daukagu eta’.

Asier Perez de Karkamo

Fernando Arriola Konpa anaien masailaria

indarra dauka, aurrelari batean ezohizkoa. Izan ere, asko zaintzen du bere burua eta une oro dabil entrenatzen, korrikan... Oso serioa da horretan, eta emaitzak hor dauka: 23 urte dituela munduko txapeldun, nagusiagoentzat izan ohi den kirol honetan.

Nola ikusten duzu bere anaia Jose Mari?

Beste fenomeno bat da. Juananekin konparatuta agian indar gutxiago dauka, baina teknika aldetik oso ondo dator. Beharbada, bere anaia baino urtebete pasatxo gazteagoa izanik, nabari izan zaio orain arte esperientzia ezarik. Egun, ordea, Estatu Batuetan dihardu jo ta ke, eta ziur naiz laster txapelduna ere izango dela.

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.



6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.000 PTA.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Isilean munduko txapeldunak



hileko kirol izarrak, ezbairik gabe, Tonia Lamarca, Almudena Cid eta Estibaliz Martinez ditugu. Hiru gimnasta hauek gutxitan agertzen dira komunikabideetan. Gimnasiak ez du saltzen antza. Guk, ordea, ez dugu zalantzarik izan; gure arreta merezi dute. Hona hemen hiru emakume urrearen bila.

KIROLA BIZITZA bezalakoa da, hau da, anaia aberatsak eta txiroak daude. Aberatsak maiz agertzen dira komunikabideetan, txiroak aldiz, munduko txapeldunak izan arren gutxitan. Azken horietakoak ditugu gaurko protagonistak, gimnastak hain zuzen ere: Tania eta Estibaliz munduko txapeldunak taldeka eta Almudena hamaikagarrena banakakoan. Hirurak, gasteiztarak, noski.

Gimnasia erritmikoa kirol gogorra da. Tania, Almudena eta Estibaliz esaterako, egunero zotzi ordu baino gehiago aritzen dira lanean. Etxetik kanpo hila-bete asko egiten dutenez, jana eta edana arretaz neurtu behar dituzte, ikastolara

euskaltegia eta
barnetegiak

zinemak 100 urte,
euskarak milaka!



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

izena
eman

dek

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08
95 Faxes: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**

“Baskoniari harrerak egin dizkiote; gu, berriz, aireportura heltzean bakarrik geunden”

joateko astirik ez dute, aste osoan lanean ibili ondoren ezin dute larunbatetan irten...

Hiruei gogorrena, halere, familia eta lagunengandik urrun egotea egiten zaie. Estik janaria ere aipatzen du: “ogia, txokolata, galletak, gozokiak... debekaturik dauzkagu”. Une horretan Almudena hartzen du hitza: “Ongi jaten dugu, baina jatekoei olio gutxiago botatzen diete. Eta xerra lehorra jatea ere! Amak bai ondo prestatzen dituela!”. Almudena ez dabil gezurretan, Munduko txapelketaren ostean, hirurek egun batzuk etxean eman eta hiruzpalau kilo gehiago hartu baitituzte.

Eragozpenak alde batera utzita, gauza onei buruz hitzegin nahi izan digute. “Argi utzi behar dugu gustatzen zaigulako gaudela honetan. Nahi duzuna lortzen duzunean, ez zaizu ezer axola”. Orain arrakastak ezustean harrapatu ditu: “Ez genuen urrezko domina irabaztea espero. Askotan epaileek ez dute behar moduan puntuatzen. Behin baino gehiagotan ariketak egin aurretik, postuak erabakirik daudela dirudi”.

Eguneroko lana

Gimnastak ariketa ezin hobea burutu behar du txapelketa egunean, eta horren atzetik dabil eguneroko lanean. Tania, Esti eta Almudena eguna zortzietan hasten dute, “goizean goiz pisatzen gaituzte”. Goizero, kiloekin ari dira borrokan, edo hobeto esanda, gramoekin. “Egunen batean zerbait gehiago pisatzen baduzu, ez da ezer gertatzen. Hori bai, egunero bada, haserretzen dira”.

Gosaldu eta entrenamendura, bederatzietatik ordubietara. Zertxobait bazkaldu,



ordu t'erdiko atsedena dia eta lanera berriz: oraingoan lau t'erdietatik bederatzieta. Ondoren, masaia eta psikologoa. Bai, ondo irakurri duzue, psikologoa. Gauero psikologoarekin elkarrizketatxo bat izaten dute, kirol honek eskatzen duen ahaleginaren adibide garbia. Eguna bukatzeko, afaria. Nahi duenak telebista ikusi eta ohera.

Lehen esan dugun bezala, gimnasia dela eta ezin dira ikastolara joan. Munduko txapelketa prestatzen ari ziren bitartean, hamar egun baino ez ziren klasean egon. “Normala da” gaineratzen du Estibalizek, “Madrilen bizi gara gimnasiaren elitean egoteko”. Lerro hauek irakurtzen dituzue: nerako, gure hiru lagunak Madrilen izango dira dagoeneko. Hala eta guztiz ere, Almudena gure aldizkaria irakurri ahal izango du, hango kontzentrazioan GEU GASTEIZ jasotzen du eta. “Horrela ez dut euskara ahazten” esan digu gasteiztarak.

Bestalde, eta eguneroko bizimoduarekin jarraituz, larunbatetan entrenamendutik bueltan gogorra egiten zaie etxera joan

BANAN BANAN

Tania Lamarca

15 urte. 35 kilo t'erdia pisatzen du. Canciller Aiala, Arabatxo eta Aurrera taldeetan ibilia da. Martxotik Espainiako selekzioan dago. Munduko txapelduna dugu pilota eta zintan.

Almudena Cid

15 urte eta 38 kilo. Aranzabela ikastolan hazitakoa, euskalduna. Bere taldeak hauexek: Aranzabela, Arabatxo eta Aurrera. Gimnasiak lau tresna ditu: zinta, soka, pilota eta gabikoak. Lauen puntuak batu eta munduko txapelketan 11. postua lortu zuen.

Estibaliz Martinez

Lagunek bezalaxe 15 urte dauzka. Lehenengo ariketak “Presentación de Maria” eskolan egin zituen. Hiru gimnastak Iratxe Aurrekoetxea entrenailearekin aritu dira. 41 kilo ditu. Munduko txapelduna da pilota eta zintan.

asmo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

BIKOTE



Julian de Apraiz 5

Tfnoa: 22 86 39

01013 GASTEIZ

GASTEIZ
PIPERMINA



KUTXI, 81

beharra, "polikiroldegitik irtetzerakoan neska-mutilak parrandan dabiltzala ikusten dugu, guretzat gogorra da hori. Gu igandeetan ateratzen gara buelta bat ematera, edo zinemara joaten gara".

Atlantako Olinpiadak

Datorren urtea ez da lasaiagoa izango hiru gimnastentzat. Helburua begien aurrean dute, Atlantako Olinpiadak hain zuzen. "Ez dugu urte osoan ikasiko" dio Taniak. Uztailaren 6an Atlantarantz abiatuko dira, eta Gasteizko jaien atarian parte hartuko dute Olinpiadetan. Esan beharra dago ez direla gasteiztar bakarrik izango Olinpiadetan, Martin Fiz ere urrezko domina lortu nahian ibiliko delako. Estatu Batuetan aklimatazioari beldur diote, "horregatik hilabete lehenago goaz". Tania eta Estibalizen kasuan urrea da ametsa, "alabaina edozein domina ondo legoke". Almudenak, berriz, banakakoan du lehia eta berak dioenez, "diploma lortu nahi nuke". Hori lortzeko aurreneko zortzien artean sartu behar eta badu esperantzarik. "Hiru tresnatan bederatzigarrena izan nintzen munduko txapelketan, beraz, finalak hurbil izan nituen".

Arrakasta lortu dutelarik, ospea zer den badakite. Lagun eta ezagunen animoak asko eskertzen dituztela diote. Hala eta guztiz ere, ez dira oso konforme. "Baskoniari harrerak egiten dizkiote; gu aireportura heltzean, ordea, bakarrik geunden" diote irribarrez. "Dena den, jendea guk egindako lanaz ohartu da. Bazen garaia! Europako txapelketan ere egon ginen eta ez zen inor agertu". Hori esan eta gero, ezagunek kalean geldiarazi dituztela ere aitortu digute; hortaz,

“ogia, txokolatea, gailetak, gozokiak... debekaturik dauzkagu”

batzuek behintzat eskertu dute beren lana.

Zorionsuenak gurasoak dira halere. Almudenaren hitzetan, "harro daudela nabari zaie. Gainera, gurasoek guregatik dena eman dute". Elkarrikketa egin genien bitartean, hantxe ziren gurasoak, pozik, sinestu ezinik...

Bukatzeko ohar pare bat egin nahi dugu. Alde batetik, Tania, Almudena eta Estibaliz taldekideak izateaz gain, lagunak ditugu. Bestetik, beren pisuari egin behar diogu so. Kirol honek gorputz argalak eskatzen ditu. Gimnastek aurkariaren eta kiloaren aurka borrokatu behar dute eta ondorioz, askok eta askok goi mailako txapelketak utzi behar izaten dituzte 18 urte betetzean. Tania, Esti eta Almudenak 15 urte dauzkate orain eta orri hauetatik kirol bizitza luzea opa diegu. Zorte on Atlantak, txapeldunak!

Ismael Diaz de Mendibiil



“Munduko txapelketa prestatzen ari ziren bitartean, hamar egun baino ez ginen klasera joan”

Kojon Prieto

BADIRUDI 'Kojon Prieto y los Huajolotes' taldeko neska mutilak ez dabiltzala txantxetan bandaren desagertzeari buruz mintzatzen direnean.

Duela bi hilabete Bergaran gauzatutako kontzertua azkena, behin betikoa, izan zen. Honela ba, azken urte hauetako Euskal Herriko talde zaratzatzena inolako iskanbilarik sortu gabe joan zaigu.

Bidean lau urte, hiru diska eta etengabeko jaia utzi digute. Nori jarriko diogu orain Napar Mex erregeen korroa?

Huajolotesen lehendabiziko lana, "Agarren-se que llegan los Reyes del Napar Mex" izenekoa, sekulako bonbazoa izan zen. Fresko freskoa, patxangaz beterik, umore onez eta azidoz tindatuta, oso abesti on batzuekin ere bai. 93eko uda Huajolotesena izan zen. Iruñean sorturikoa, San Ferminak gehiago alaitzeko jaiotako kantak, berehala zabaldu ziren Euskal Herria osora, "eres un hada, eres un duende ..." esaldia edozein jaitako funtsezko osagarri bihurtu zelarik.

Kontzertua ala jaia? Zein da Huajolotesen

DenBo Rapasa



MINTZALAGUNEN BILA GABILTZA!

GEU elkarteak euskaldun jendea behar du euskara ikasten ari direnei mintzatzeko aukerak emateko prest.



INTERESATUOK GEURA DEITU 22 21 53 (RAUL)



y los Huajalotes: mila esker!

agerraldiei zegokien hitza?

Kontzertuz kontzertu, jairik jai, bigarren diskoa 94eko udaran ailegatu zitzaigun. Bazirudien Iruñeakoe George Dann handiari erreleboa hartu nahi ziotela, gure bero garaietako musikari nagusiak izan gura zutela. Uda, Napar Mex, Huajolotes sinonimo bilakatuko zirelakoan geunden, eta asmatu genuen. Bigarren diskoak, "Y síganle compadres" hain zuzen ere, lehenengoa bezain arrakastatsua ez izan arren, Napar Mex doinuaz bazter guztiak bete zituen. Freskotasunari eusten zioten, ez ordea sorpresarako gaitasunari.

Hirugarren emanaldia aurtengo udan izan dugu. "¡Salud Cabrones!" galduriko indarra berreskuratzeko asmoz zetorren. Kalitate handiko grabazioa, abesti borobilak, ondo jota. "Udako turroia" izango zela espero zuten beraiek, baita argitaletxeak ere, baina gauzak ez ziren alde zurretik pentsatu bezala atera, eta guk, harriturik, neska-mutil hauen diskarik landuenak zergatik desagertarazi duen Napar Mex

doinua gure belarrietatik galdetzen diogu gure buruari. Ez dugu ulertzen.

Huajoloteak leku guztietan izan ditugu: Napartheid aldizkariarentzat single bat grabatuz, Tuterako Nafarroa Oinezi laguntzen, Flaco Jimenezekin eskenatokia konpartitzen, gure herrietako jaietan, tabernetan, gaztetxeetan, mobida asko eta askoren alde... Agian lau urte hauetako karrera luzeak nekatu ditu? Behar bada, egin nahi zuten guztia eginda daukate jadanik? Partaide gehiegi ote ziren ados egoteko? Batek daki. Hori bai, gogoan gordeko ditugu Huajoloteak ikusi eta entzun ahal izan ditugun era desberdin guztiak: gaizki eta oso gaizki, ondo eta primeran, zeharo mozkorturik eta ez hain mozkorrik, beti Huajolotes, Huajolote hutsak, umore onez, alaiak, poza kutsatuz, erreibindikatioak.

Horrexegatik, mila esker eta hurrengo abenturan abisatu mesedez!

Joxe Mari - Txabi Arnal Gil



	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	O	L	A	N	O		A	L	A	I
2	K	A	Z	E	T	A	D	I	A	K
3	E	N	A	R	T	U	A	K		E
4	N		R	I	O		K	I	H	A
5	D	I	O			B	A	D	A	
6	O	K	A		P	O	T	O	L	A
7		A		P	A	T	U		A	T
8	A	T	E	O		A		E	R	A
9	E	Z		T	A	K		Z	U	K
10	D	A		O	L	A	K		A	A

ZE HARRETARA:

1. Euskal txirrindularia, munduko txapelduna. Kontent, pozik. 2. Kazetaritzan dihardutenak. 3. Onetsiak. Bokak. 4. Nitrogeoa. ... de Janeiro, Brasilgo hiria. Kimatu aditzaren infinitiboa. 5. Hark hari, du. Badago. 6. Joku bat. Lodia. 7. Lehen. Zori, halabehar. Kanpo. 8. Sinesten ez duena. Lehen. Modu. 9. Ukatzeko. Tik, ..., erlojuaren soina. Ez nik, ez hark. 10. Dago. Burdinola. Alkoholiko Anonimoak. GOITIK BEHERA: 1. Arabako udalerria. Arrasete Euskaldundu Dezagun. 2. Soldata baten truke egiten da. Material beltza. 3. Gauden

hilabetea. Bokak. 4. Gipuzkeraz niri. Bertsotan huts egite. 5. ... Pette, A. Lertxundiren eleberria. Haur-hizkeran, musu. Aluminioa. 6. (Ald.) Arabako alderdi politiko bat. 6. Botatzen, goraka. 7. Aztertu, miatu. Potasioa. 8. Solido ez. Euskal Herria. 9. Lehen errepikatua. Paludismoa. 10. Gasteizko jatetxe bat. Ateska, atetxo.



Bacalao Giraldo

• Egunko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkata - Zaldiaran • GASTEIZ



ANBOTO jatetxetik:

Iñaki eta Gontzalekin hitzegiten



KUTXILLERIA KALEA ondotxo eza-gutzen dugu denok: tabernak eta jatetxeak dira nagusi. Jende asko legez, Kutxira abiatu eta Anboto jatetxera sartu gara. Jatetxe txukun eta jator horretan Gontzal sukaldariarekin eta Iñaki "Tazones" nagusiarekin hizketan aritu gara.

Nola sortu zen Anboto jatetxea?

Anboto jatetxea Jesus Oleagarekin jaio zen, berak sortu zuen orain dela hogeitau inguru. Gero beste jabe bati utzi zion Jesusek eta duela hiru urte nik hartu nuen. Jatetxe hau zergatik hartu nuen azaltzen ez

• AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA •

GEUREKIN MENDIRA

Jarindo azaroaren 19an

IRTEERA: Goizeko zortziak eta hogeian, Autobus geltoki berrian. Lineako autobusa hartuko dugu eta joan etorriko txartelak 400 pezeta inguru balio du.

ITZULERA: ordu bietan.

IBILBIDEA: Benta Fria-Jarindo-Benta Fria

erraza eta eroso (gainera, gogoko aldapan nekerik ez)

Telefonoa: 22 21 53



MUNDUA MENDE BUKAERAN

hitzaldi
sorta

Azaroak 6, Astelehena

**"BIZITZA EKONOMIKOAREN
PROTAGONISTAK"**

Mikel Urdangarin

Setan Luis de Ajuria Aretoan

Azaroak 13, Astelehena

**"KONTZIENTZIA SOZIALAREN
ETA ZUZENBIDEAREN ARTEKO
BORROKA"**

Alejandro Toribio

Setan Luis de Ajuria Aretoan

Azaroak 20, Astelehena

**"MENDE AMAIERAKO
GAISOTASUNAK"**

Jose Carlos Perez Cobo

Setan Araba Aretoan

Azaroak 27, Astelehena

**"HALA ETA GUZTIZ ERE,
ABSOLUTUTASUNAREN BILA"**

Antonio Ortiz de Urbina

Setan Araba Aretoan

nuke asmatuko, baina egia esan sukaldaritza gustokoa dut.

Anboton nolako sukaldaritza egiten duzue?

Bi sukaldari mota egiten ditugu: batetik betiko sukaldaritzaren platerak lantzen ditugu eta bestetik sukaldaritza berria.

Ligatzeko asmoz datorrenari, zein menu prestatuko zenioke?

Ez dakit balioko duen baina ligatzeko nik gomendatzen dudana hauxe da: entremes batzuk hasteko; jarraian alkatxofak almejeekin eta bigarreneko suflet bat edo legatza. Edateko, berriz, urteko errixako ardoa.

Ireki berri dituzten jatetxe mexikar eta txinatarrek arrakasta haundia dute gazteen artean. Zer dela eta gertatzen da hori?

Moda bat besterik ez da baina, egia esan, luze irauten ari da. Moda horren arrazoia gazteengan aukitu behar da nire ustez. Gazteek ez dute afarietan diru askorik xahutu nahi eta horrelako jatetxeetara joa-

ten dira. Horrek eraginda sortu dira gure artean jatetxe berri horiek. Gaur egun zaila da jatetxe bati eustea, baina betiko jatetxeak ez dira inoiz desagertuko, gure kultura-ren parte baitira.

Udazkena izanik, zein dira urtaro honetako plater arrakastatsuenak?



Dudarik gabe onddoak dira udazkeneko izarrak: onddoak eta ehiza. Araban, hala ere, onddoek ez dute Gipuzkoa eta Nafarroan adinako arraskatarik. Hemen ehiza estimatzen da gehiago.

Zein da zuk dastatu duzun platerik arraroena?

Platerik arraroena dudarik gabe Mexikon dastatu nuen. Lanean aritu nintzen han eta behin, San Cristobal de Las Casas-en nengoela, intsektu batzuk jan nituen azoka batean, eta egia esan goxoak zeuden; orain ez dut gogoratzen intsektu haien izena. Mexikoko sukaldaritza oso aberatsa da, pikanteaz gain gauza mordoa du.

Orduak emango genituzkeen Anboton baina eguneko zereginak ezin genituen alde batera utzi. Sukaldariak otordua prestatu eta guk, berriz, artikulua hau idatzi behar genuen. Hurrengo batean, ea zuzendariak artikulua hau kontutan hartu eta afaltzera gonbidatzen gaituen.

Karlos Fdz.. d e Betoño

URRIA • AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA •

Ni-aren idazkerak

LITERATURA IKASTAROA

Bergarako UNED-ko euskal departamentuak antolatua.

Autobiografia ikastaroa

Autobiografia jenero literario gisa, autobiografia eta autorretratoa, autobiografia eta hizkuntza, Ni-aren idazkerak,...

Klaseak larunbat goizetan izango dira. Informazio gehiago: 943-76 13 43.



antzerkia

Tantaka taldeak aurkeztu du

Denak errudun

Azaroaren 14an (asteartea) iluntzeko 8,30etan Principal antzokian

Aurrerapausuak eman badira ere, oso gutxi dira, oraindik, Gasteizen, euskaraz taularatzen diren antzezlanak. Horregatik besterik ez balitz ere, mereziko luke bertara joatea. Baina ez da hori bakarrik! Izan ere, oso lan txukuna aurkeztuko digu Tantaka antzerki taldeak. Lau protagonistak amatasunaren aurrean:

Ama izan nahi dut! Ama izan nahi dut!

Ixilduko al haiz, behingoz, txotxola hori?

GEU elkartearen batzar nagusia

azaroaren 24an, ostirala
iluntzeko 7,30etan
"El Campillo" gizarte-etxean
ondoren:

gaueko 10etan bazkideen
arteko afari eder eta gozoa
Irrintzi Elkarte Gastronomikoan
(Kubo kalea, 7)

Afalostean denok kantari **ANJE DUHALDE**ekin batera

izena emateko deitu azaroaren
21a baino lehen telefono
honetara:

22 21 53

PREZIOA: 3000 PTA.

(GEU BAI MOKOFINAK!)

50 lagunentzat soilik bizkor ibil hadi!

NEBKATO TRISTBA



Floridako altxorra !

35



adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Caja Vital Vital Kutxa

Azaroan eta abenduan zure aisialdiari berebiziko bizitasuna emateko aukera izango duzu, horretarako Vital Kutxak erraztasun guztiak zure esku jarriko ditu eta. Oraingo honetan, bi motatako ekitaldiak eskaintzen dizkizugu: abentura kutsukoak eta ekintza nautikoak, zein baino zein erakargarriagoa eta gozagarriagoa. Erne, bada, ondoko datuei eta etorri lehen bait lehen Vital Kutxara. izena

Kirol-abentura

Hipika	azaroaren 12an	5.000 pta
Rafting-a	azaroaren 4tik 5era (asteburua)	9.000 pta
Puenting-a	azaroaren 19an eta abenduaren 17an	3.000 pta
Trekking-a	azaroaren 25tik 26ra (asteburua)	5.500 pta

PARTE HARTZAILEAK: 15 urtetik 45 urtera bitartekoak. 15 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

IZENA EMAN: ekintzak asteburuetan egingo direla kontutan izanda, aurretiaz eman behar da izena, aurreko astelehenetik aurrera, hain zuzen

Caja Vital Kutxaren Telecaja Joven txartelaren jabeek %15eko deskontua izango dute izena emateko orduan. Bestalde, izena emateko eta ekintzei edo ikastaroei buruzko argibide gehiago jasotzeko, Postas Pasabidea-General Alava kaleko Caja Vital Kutxako bulegora jo behar da goizeko 9etatik arratseko 8etara.

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	

